

## ESKUARTEKO ERLIJIO-LIBURUAK

“Txitak mututu” deritzote Arrietan, trumoiak jo eta isiltzeari, ez ateratzeari: “urtetako denpora gitxi daukienean, mutututa lotzen dira, hil egiten dira bertan”.

Nik herritarren jakituriako adibide bikain hau parafraseatuz, esan nahiko nuke, zer batek jota –antipodetatik antipodetara jokatzek, behar bada,- euskal mundua erlijio kontueterako mututurik-edo bizi izan dela aspalditxoan. Azkenaldion, ordea, Joxe Arregiren *Jainkoaz galdezka, 40 euskal idazleren erantzunak* tankerako liburuak eskuartean, badirudi “mutututako txitei” berba etorri zaiela, hots, neuri ere etorri zaidala. Gainera, etorri ez balitzait hitza, hor izango nuen Luis Baraiazarra eta Julen Urkiza arima itzainen akuilu digitala proba-harriari tiraka has nadin.

Gurako nuke egun baten era kutunagoan, modu hunkigarriagoz, erlijioaren gainean mintzatu, molde idatzian adierazten ausartu, zaidana bizitza osoan hain barruraino sartu edo, agian, barrutik sortu, ezen itsaspeko mendietan litzatekeen ur-emia nork asma den ozeanoaren beraren jario ala iturri berezko? Behar bada, gazi-gozoak lituzke bereiziko eta norbere barreneko iturria denean ur gozoak salatuko. Baina, irakurle, horretarainoan denez kontu hau sakon eta hondoko, zertarako burumin konpongaitzez gogoia astindu, zeren, finean eta buruan, izaera espiritualean murgildurik diraugu, sinetsiz batzuek

geroaren oraina dela une oro dasta genezakeen espiritualtasun hori; ukatuz besteek mikroskopioz edo endoskopioz esperimenta ezinezkorik izan ere badenik unibertsoa ezer.

Ni neu, edonola ere, Moises ordukoa legez, otzarazko sehaskan ninduenez amak uretaratu eta berriro mundura banindekar antzeratsu gertatuko litzatekeenez, ezin, bada, gau eta egun nabiga, inguruari nahiz ingurukoei itaundu gabe, ea norantz noan edo begien aurrean dakusadanetik harago zer dagokeen. Azken baten, erakusteko honekin guztiarekin “gizaki pentsatzailea” naizela, ez “pentsujalea”.

Oraingo honetan inoren erantzunak ekarriko ditut, gehienbat, paperera ze, norbera norbere buruarekin bakar-bakan topatzen den une zirrargarrienetan ere, erantzunak baino gehixeago baitira azaleratzen galdera, korapilatsuak, hainbestera-nokoak non ezin uler litekeen etorri ere nondik letozkidakeen.

Akordu bako orduak igaro izan ditut liburuen irakurketan –gaurkoan erlijio-liburukoetan- bizpahiru aldi garrantzitsutan interesaturik. Gure aroko lehen mendea, batetik, Jesus deitua ordukoxea delako; euskal literaturak hurreratua, bigarrena, Etxeparerengandik Iratederrereenganainokoa; eta hirugarrenik, azken hogeita bost urteotako teorilariena, postmodernitatearen ateo giroari erantzunez datorrena.

Azalpen barik ulertuko da, artikulua xedea dela, norberaren iraztontzitik igarotako liburuak arakatzea, ez gai hau oinarri dutela izkiriaturiko aipagarrienak.

## **Bibliak eta katezismoak**

“Gure Aita” grekoz badakit, Federiko Krutwig Nietzschezaleak testu idatzia banatu zigulako dakit, Leizarraga lantzen ari ginen urteetan: “Πάτερ ἡμῶν ὁ ἐν τοῖς οὐρανοῖς...” Aldi hartan nuen ulertu Federiko irakasleari eta Leizarragaren ekarriari esker, arranoaren hegazkadaz aieratzeko nolako lumak behar diren, baita ateo benetakoa zen Krutwig nola izan zitekeen katolikorik gehienak baino Biblian jantziago eta jakitunago.

Geroagoetara, 1994an *Elizen arteko Biblia* argitaratu zenean -neure eraginez eta Dionisio Amundarainen garrari zor-, Itun Berria euskaraz ez eze latinez eta grekoz ere taxutu zen. Sasoi hartan ikasi nuen San Joanen ebanjelioko hasierako testua: “En arch hn o Logoz...” inspiratua.

Liburu berorretan, Dionisio Amundarain “Homo ad laborem natus”ek, honelaxe idatzi zidan: “Joan Luis, hire eraginari asko eta nire buru gogorkeriari zerbait, eta “kultura nagusien” inperialismoarekiko nire higuinari eta mundu osoko herri-kulturei die-dan maitasun sutsuari eta, ildo beretik, euskaldunon kulturaren ezaguerari eta arima den euskara, hobeto esan, Euskal Herria bihotz gordeenean izateaz gain lau-haizeetaratzeko dudan gogo hezikaitzari animoa zor dien liburua duk. Har ezak nire esker onaren eta adiskidetasunaren lekukotzat”. (Lazkao, 1996-04-22).

Ordukoaren ondorik, domekaro-domekaro jasotzen ditut Dionisioren kristau mezuzko emailak, ordenagailura isilka sartzten diren arren, zenbaitetan barne hasperena daragitenak.

Amerika Iparrekora egineko lehen bidaian, liburu bikotea aurkitu ohi genuen hoteletan, bata *The teaching of Buddha* ingelesez eta japonieraz, Biblia bestea: *Holy Bible*, placed by the Gideons. Zenbateraino den tentagarria halakoa eskuratzea! Ezen, berez, Patxo Torrotok ahoz belarrira zidanez Mungiako Rakuren esaera gogora ekarririk: “dirua eta gauzak galdu ez dira egiten, eskú aldendu besterik ez!”. Dena den, Renoko liburu-denda guztiz zabalean, erosi nuen Biblia: “a new Catholic version” delakoa, biblia-paper deritzan orri garestiz gorpuztua.

Arterik nerabilen tarteko, hortik kanpo, Bover-O’Callaghan-en *Nuevo Testamento Trilingüe*, B.A.C.ek argitaratua, latinez errez ulertzen dena, epe baten inoren ahotik irakurtzen entzunikoko paragrafoak izanik, abade haien oihartzuna sentiarazten zidana, kasurako, Jose Luis Malillos irakasle jakitunarena.

Dena den, etengabe honetara jokatu ez banu, zelan isildu norbere gogoia iturrietara jotzekoa, gauzen kausak bilatze-

koa, norbere oin bikotea, bata euskalduna, bestea greko-latinokoa, norbere dena ikertzekoa?

Sakratuak aldean dakarren sekretua argitaratzeko premia ere behin eta berriz sentitzen badugu, egoera jakinetan hareago dugu egiten. Idazle, irakasle eta estudianten artean jardunik ene lanbidea dela-eta –ez maizegi baina inoizka– erlijioaren gaineko eztabaidak-eta sortzen dira. Halakoetan, baietza baino baietz zergatik itaundu ohi da. Azkenean, beraz, inorenaren aurretik ni neure burua erantzunez hornitzeko, liburu teoriko zein kritikoetara jo beharrean izan ohi naiz.

70eko hamarkadan, *Holandako Kristau Ikasbidea* itzuli zuten *Jakinekoek* ezen “Urte batzu baitira *Holandako Kristau Ikasbidea* argitara zela. Ondorengo gorabehera eta eztabaidek ez diote jatortasunik kendu, ez eta pasa diren urteek, gaurkotasunik”. Mutatis mutandis, nire ustez, gaur bertan ere baliozko da liburu hau, bai daukan aberastasun entziklopedikoarengatik, baita gaur egun ere uste erdi ustel ugari senda lezakeelako, hala herritarrenak nola eliza ofizialekoak, zeren gai gehiegitan Erromatik bidaltzen dizkiguten artzainek Vatikanoko II.a aipatu ere ez baitute egiten.

Euskararen aldetik, bestalde, liburu jaso bezain eredugarria zen urte haietan. Aitor dezadan, esate baterako, aditzean trebatzeko erabiltzen nuela, zeren irudi ere baitirudi aditz paradigmatik osorik hustu zirela testu honetara: “Aurkitu lezanak”; “erantzun bat darie”; “diezazkioke...”.

Horrez gain, atal erabat interesgarria da Jose M. Rementeiriak gehitzen duena, liburuaren hasierako *Euskal Kristau Ikasbideen historia laburra* izeneko, literaturako iruzkinetarako-eta behin baino sarriagotan erabiltzen dudana.

## **Euskal literaturako liburuak**

Euskarako irakasle deitu izan gaituzten arren, bai batxilerreko irakasle nintzelarik nahiz arterik Magisterioko maisu-mais-

trena nintzenean, Euskal Hizkuntza eta Literaturakotzat eduki dugu geure burua. Eta irakurle kulturadunak ondo dakienez, behin literaturari euskaraz oratuez gero, aztergai dira subjektu nahiz objektu erlijiosoak.

Gaurko hariari berroratu, onartu beharrekoa da, Axular ezinbestekoa dudala, zeren Mitxelena jakitunari hitza hartuz baieza nezakeelako ez dakidala zein den bietarik errealago Pedro Axular egilea ala *Gero* idazlana.

Edozein modutan ere, nirekin gazteriak kurtso orotan ikasi izan du buruz –ingelesek zerbaitegatik “by heart” deitzen dutena- Axularren pasarte erlijiosoren bat; usuenik, “Egun batez, ez duela...”, deusek ere hanbat kalte egiten arimako eta ez gorpuzteko ere nola egitekoen geroko utzteak...”. Horren dira pasarte gailurrak eta goi-lurrak non plazer estetikoak ere aise sorrarazten duten. Gutxienez dut azpimarratzeko jositako birritan irakurri, eta hain zuzen, hondartzan etzanik ere bai, Sarako Erretorak salatzen duen “nagi-alferra” izan gabe.

Erljioko mezuari begi eman ote nion? Ez zitzaidan, behintzat, behaztopa harri gertatu, alderantziz izatekotan, ezen Pedro Agerre Azpilikuetak bizitza arrunteko solido nahiz likidoak mistikaren bidez lurrintzea erdiesten baitu.

Deitoragarri itzelean, Pierre de Lancre torturatzaileraren hasinoren berririk-eta ez eskaintzea hain idazle paregabeak.

Hara idazleen printzeak *Geron* laga digun herentzia brintza: “Oren guziek dute gizona kolpatzen, azkenekoak du hobirat igortzen” eta laga ere izkiribatua Sarako eliz dorrean, zeinetan ziren habe erreterikoaz sorturiko arte lana baitut idazten ari naizen une honexetan ene aldamenean.

Hitz laburretan, erlijio liburuak ikur ditut, Leizarraga greko-filo protestantearen eta Axular latin landuko testugilearen lanari esker.

Bestalde, irakaskuntza osoan ezagutu izan dugun metodologia berberarekin geureganatu dugu urrunetik hurbilerako bide-

an literatura ere. Etxepare edo Leizarraga nahiz Axular lehena-go jorratu ditugu Mogel, Frai Bartolome edo Añibarro baino. Eskerrak, Urkijok, Krutwigek eta Villasantek klasikoekiko etena “ez dena” dela ulertarazi ziguten, eta irakatsi 1968an kontzientzia hartutakooi, aranismoetik salto eginik lapurterara jotzen.

*Cristauaren ikasbidia edo doctrina cristiana* Juan Antonio Mogelena irakurririk jakin dut zergatik zuen aitita Pedro Torrotok txapela kentzen solo erdian: “Txapela erantzi Jesusen edo Mariaren izena aitatuten dan bacotxian”. Gauza bera kanpaiak entzutean: “Esan arretaz Avemaritacuak canpaiak orretaraco ots eguin daruanian”.

Antzera gertatu zait jai egunak jagoteaz ere: “Alan ezta pecatu, edo icaztobia suagaz dagoanean, yai-domecetan bear eguitea, ez carobia daucanari lagundutea” dio Aita Juan Mateo Zabalak. Halakoxea izan zen umezaroan eta gaztaroan ezagututako bizimodua, zeinetan ez genekien erlijioaren eguneroko eragin zuzena zertan zetzan.

Ohitura familietakoetan sortu ohi zen errosarioa ere Sebastian Mendiburu –idazleen artean Ciceron denak- aipatzen digu: “Jesusen ama honratzeko dà beraren egun oroko errosarioa...”.

Ez dira denak ere, beraz, hausnarketa liburuak soilik, ezpada baita eguneroko praktikan eragiten digutenak ere.

Liburu kutunen arteko ditut, zentzu baten, Aita Agustin Cardaberazen *Aita San Ignacioren egercicioen gañean afectoac...* eta Francisco Ignacio Lardizabalen *Testamentu Zarreko eta Berrico Condaira*, zein baino zein edizio zaharragokoak direnak, sagu-sitsek sakratua eta profanoa bereizten ez ikasirik, denpora-pasagarri hagin artean erabiliak. Eskuarteko erlijio-liburuen artean honelakoek antzinatasunaren labelagaz ferekatzen dizkigute ahurrak.

Eta horrela, punturik puntu eta komarik koma, heldu gara Abrahamengandik datorkidan sinesmenean Frai Bartolome

markinarra eta neure gurasoak –hirurak ere batera direnak honezkerotzera.

Behinola abiatu nintzen idazten ipuin bat zeinetan Sollube magaleko koban aurkitu nuen birraititaren testua –gaur birramoma idatziko nuke-. Zer da kontua? Ipuinaren aurretik dabilkidala bizitza eta topatu egin dudala haitzuloko izkribua, Frai Bartolome Santa Teresa azalean dakarrena, Luis Baraiazarra Sollubepekoak Julen Urkiza uztarkidearekin batera argitaratua.

Zenbat ordu laurdeneko tarte ez ote dut nik supertomo horrekin eman! Hortxe aurkitu dut familiaz jaso dudana euskararen diakroniarako oinarria. *Edola bere esaten zeuen Jose Égik* zioen gure amak –nahiz eta berak amak ez erabili. Nik gero “edola” hori eta tankerako milaka Frai Bartolomen testuan aurkitu izan ditut. Berehala katea eginik –ibilbide diakronikoaz jabetuta- neure, gure amaren, Jose Égiren eta Frai Bartolomen artean, orotara ia mende bi betez.

Baso latza da Frai Bartolome, hala gura baduzu, elizarako sarrera konfesionarioko atean ipintzen baitu. Baina diogun oihan horretan, nolako harrobia, zer zuhaitz tantai, zer olatza sendo nahiz lore liri! Hara: “Jaungoikoaren gaucetarako daucan atcerapena, gogo illa ta bijotz otza”.

### **Etenean, oinarri teorikoak.**

Halako baten, era nahiko barean, ia bizimodu beti bereztuan nembilela, bizitzako lurrikarak arrakalaturik aurkitu ginen, arterik nekarren bideari ezin jarraiturik. Aurrean leizea, begiak lauso. Nora jo?

*¿Existe Dios?* Hans Küng-en 974 orri lerroz lerro, pasartez pasarte irakurri nituen. Bertan, René Descartes: “Je pense, donc je suis”; Blaise Pascal: “Jainkoarengan sinetsiz, beti ere, ez da ezer galtzen, baina dena irabaz daiteke”; Ludwig Feuerbach: “Ez da Bibliak dioena: Jainkoak sortu du gizakia bere irudira, ezpada, alderantziz: gizakiak sortu zuen Jainkoa bere irudira; Marx,

Freud, Friedrich Nietzsche... Eta azkenean, ateismoaren alternatibaz, gehiago jakin guran, Hans Küng pentsalariari idatzi nion bi mila eta batgarren urtean. Aiko hemen erantzuna:

Dear Juan Luis Goikoetxea:

Thank you very much for your kind letter. Every day I receive in fact similar requests and I am sure you will understand that even by making big efforts I can respond in depth only to a small portion of them.

During the past years I burdened myself with an extraordinary amount of travelling, speaking and similar activities. I simply cannot go on at this pace. I have been urged by my medical doctor to cut down seriously some of my activities. I would also like to finish my numerous publication projects before it will be too late, as I am now in the eighth decade of my life.

I kindly ask your understanding and send you best wishes.

Yours sincerely

Hans Küng

Ondorik, Hans Küng-ek zahartzaroaren mugek loturik aurkitzen dela erantzutean, hots, haren bidean goia jorik, ibilbide alternatiboen bila abiatu nintzen. Denean dela, interimetariko baten, Karmelo Etxenagusiaren *Euskara nire bizitzan* irakurri nuen. Bertan ere, Pascal jakitun handia gogoan harturik dakarkigu: “Gure Jainkoa ez da filosofo eta jakintsuen Jainkoa, Abraham, Isaac eta Jakob-en Jainkoa baino”.

Sasoi horretan, lurrikarak erdibitu zuen sendiak beren-beregi eskaturik bila nenbilela, *Guía de las dificultades de la fe católica* topatu nuen; Pierre Descouvenont-ena, Descleek argitara emana. Aiko hemen liburuak zekarrena: “Fedean pertsona heldua izatera iristeko, beharrezko da berriro ume txiki bihur gaitetzen”. Hara norberak egineko ahalegin handiak intelektualki hornitzeko, Sisiforen harria legez goitik behera etorriak.



Galdera-erantzunka, *Herria-2.000 Eliza* aldizkaria ere izan ohi dut aspaldiko lagun, Joseba Goñik –Goian Bego- behinola-ko neure pianoko irakasleak zuzendua. Hor erlijioa eta pertsona baino, erlijioa eta herria aurkitu ahal izan ditut argiturik neure pozerako.

Tarteka-marteka Don Klaudio Gallastegiren idazlana, J. M. Apellanizen *Recuerdos de un cura viejo*-eta halako narrazio atseginak, lurrikararen mina indargetu ahala Hans Küng-en bidera itzuli arte.

Orduan batu nuen eskuartera *La figura histórica de Jesus E. P. Sanders*-ena, zeinen bitartez teorikoki gaurkotzen hasi nintzen. Erabat lagungarri gertatu zitzaidan *perikopak* zer diren eta ebanjelioak nola dauden antolaturik garbiago ikusteko.

Azkenean, liburu dendetara joan-etorri alferrikoetan “liburu piadosoak” baino besterik ezin aurkituta jardunik, eskuratu nuen behar-behar nuena, alegia, Joxe Arregiren *Nazaretoko Jesus*. Poztu nintzen erdaraz eta erdaretan soilik aurkitzen nituen hausnargaiak “Hemen” aldizkarian ez eze liburu sendoetan ere irakur nitzakeelako. Euskara jatorrean, maila akademikorik gorenean, anestesiarik gabeko era gordinean sortua: “Birjintasun biologikoak ez luke Maria inolaz bertutetsuago, goresgarriago, duinago egingo”. Guztira, 390 orri bete-beteak.

Gainera, egia esanda, zenbat ideia bikain Bibliako pasadizoen egitasunaz, pentsaera helenistikoaz edo esperientziaz: ez dago “esperientzia soilik, hizkuntzarik (edo interpretaziorik) gabeko esperientziarik”.

Hori horrela, ordurik gora, hauxe dut teoriaren talaiatik begiratzeko urrunerako teleskopio berria, edo hurrerako mikroskopioa “ipsissima berba” derizateneraino iristekoa.

Gaur egun, Hilari Ragner-en *Aita Patxi* derrigorren ondotik, A. Martzel Andrinuaren *Aita Patxi* irakurri dut. Bertan, Rikardo Badiola laguna ere agertzen da: “Egunero-egunero bisitatu ohi zuen (Aita Patxi makalik zena) gizon batek, eta har-

tzen zuen Aita Patxiren bedeinkapena belaunikaturik: Rikardo Badiola zen”.

Honenbestez, giltzean itxiko dugu artikulua, bazter laga ditugun liburu ederren omenez Kerexetaren *Salmutegia*, Emile Larreren *Ene artzain etxolak* edo Martin Olazarren *Zu, Martin* gogora ekarririk.

“Zure bila nenbilen orain baino lehen” eta hala dut iraunen, harik eta hemengo ilunetako kandela hau, hango argitako kandela bilaka dadin arte, alegia, gero arte.

*Juan Luis Goikoetxea Arrieta.*